

## J. B. ELIZANBURUREN BERTSOGINTZAZ BI HITZ

Sara, 91-XII-20

Patxi Altuna

1. Egun hauetanxe inguruan suertatu zaizkidan bizpahiru xehetasunek bultzatu naute J. B. Elizanbururen bertsogintzan beti atentzioa eman izan didan puntu baten azterketari zenbait ordu eskaintzera. Xehetasun horiek izan dira, batetik Etxepareren obra —aztertu nahi dudan puntuan Elizanbururenaz hain bestelakoa— azken hiru hilabete hauetan ikertzen jardun izana Euskal Filologiako ikasleekin eskolan; bestetik, duela ia ehun eta hogeitau urte aita Jose Ignacio Aranak guztiz bururatu gabe utzi zuen “Arte métrica de la lengua bascongada” *Fontes*-erako berriki prestatu izana, eta azkenik, Oihenarten mendeurrena gainean dugula eta, haren bertsogintzaz hartuak nituen ohar batzuk tolestatzen aritu izana. Hiru lagun on horien erakaspeneren eta jardunbidearen argitan eman nahi nuke hemen arras laburkiro aditzera Elizanbururen bertsogintzako puntu interesgarri bat.

2. Norknahi daki Etxeparek, geroztikako bertsolari guziek bezala, ez zuela legerik ezagutzen ez betetzen elisio-sinalefeñ dagokien puntuan; egiten zituela edo ez, alegia, gogoak eman bezala edo bertsoaren konbentzientzien arabera, eta, areago dena, hori dela, hain zuzen, gure herri-bertsogintzaren bereizgarrietako bat. Halaber mundu guziak daki Oihenartek euskarari bertsogintza hori baino dotoreagoa —ikasiagoa eta landuagoa—, Europako hizkuntzek garai hartan eihotzen zutenaren parekoa, opa ziolako eman zituela batikpat bi lege, eta horietako bat hau zela: bertsoan barrena hitz bat bokalez amaitzen eta haren ondoko hitza bokalez hasten zenoro, zeinahi zirelarik bokal horiek, elkarrekin urtu eta silaba bat osatu behar zutela ezinbestean, bertsogilearen edo poetaren aukeran utzi gabe inola ere.

3. Aspaldi idatzi nuen, lege bat ematea erraza baita eta norberak edo bestek emana betetzea ez hain erraza, ez zela txikia Oihenarten meritua berak eman legea eman ez ezik, bete ere beti egin zuelako, inoiz hutsegín gabe, inprimategiko errakuntzaren batean edo bestean izan ezik.

Meritu horren ondoan akats txiki bat ere egotzi behar geniola, ordea, ez baitzuen eskubiderik, berak sorturiko bertsogintza berriaren izenean, berak baino lehen halakoa erabili ez zuten guziak txarresteko eta *vulgares versificatores* izendatzeko. Bertsogintza zaharraren ondoan berria ongi zegokeen, bientzat baitzen leku, baina ez zen zer erdeina eta arbuia hura berria goresteagatik. Oihenarten bideari ez zitzaion gero damurik inor jarraitu, jakina den bezala, neurri batean Gasteluzar izan ezik.

4. Beraz elisio-sinalefak noraezean egitera behartzen du Oihenartek poeta, eta bi mende geroago lege bera beretuko du Sabino Aranak, pixka bat bigundurik, egia esan, eta lege hori hartuko dute beretzat "olerkari" izeneko Lizardi, Orixe, Lauaxeta eta gainerakoek. Nork esan Etxeparek eta gainerako bertsolariek puntu horretan duten askatasun osoa baino hobe den ala ez Oihenartek, orduko Europako hizkuntza landuetako bertsogintzaren usarioetatik ikasi zuen lege zorrotz hori? Poesia oztopoak gainditzen eta zoztorrak menderatzen baletza bai. Oihenartez ari zelarik idatzi zituen Mitxelenak, hain zuzen, honako hitz hauek: "Bertsoak, koblak, edozein jende-mendek errax egin ditzake. Ez da hori, ordea, gizon landuei dagokienez hitz-neurtuz mintzatzea. Lege zorrotzagoak jartzen dituzte hauek eta eragozpen-debekuak elkarren gainka. Zailago eta ederrago, eta ezina ederren, egingo balitz".

5. Alde horretatik poesia ona egiteko axolakabea zela iruditzen zitzaigun askatasuna edo zorrozatasuna, horrelako lege bat ematea edo ez, betetzea edo ez, eta azken batean gustu kontua zela, poesia beste zerbaitean datzalako, baina hara non datorkigun aita Jose Ignacio Arana hor goian aipaturiko eta oraino argitara gabeko "Arte métrica de la lengua bascongada" delakoan esanez elisio-sinalefa gehiegik bertsoan ez dirudielari ongi: "Las muchas sinalefas y sinéresis y las sílabas de más de dos consonantes que no sean onomatópicas hacen duro y demasiado pesado el verso eúscaro y por tanto se deben economizar". Beraz Oihenartek, European zehar ibiltzeko moduko poesia nahi bagenuen, elkarren segidako bi hitzen azken-lehen bokalak beti elkarrekin urtu behar genituela; Aranak, berriz, hori bertsoan maiz gertatzen bazen, bertsoa astuna eta gogorra gertatzen zela. Zer egin?

6. Dilema horretatik itzurtzeko eta bien esana betetzeko ez zaigu bide bat baizik gelditzen: alegia, galerazi ahaleginean bokalez amaituriko hitzaren ondoan inoiz suerta dadin bertsoan bokalez hasiriko beste hitz bat, eta horretarako nola edo hala egin, hitz guziak edota kontsonantez hasi edo kontsonantez amai daitezen; edota, hori ezin galeraz baledi eta inoiz edo behin elkarren segidako bi hitzen azken-lehen letrek ezinbestean bokalak izan behar balute, elkarrekin urtu eta elisio edo sinalefa egin. Eta puntu honetara helduz gero, galdegin genezake zein duen Elizanburuk bere lege, baldin legerik badu, auzi honetan: Etxepare eta

bertsolariena ala Oihenartena, ala Aranarena. Galdera hau egitean ez dut inondik ere suposatzen, halere, Sarako poetak Oihenarten ez eta Aranaren araua ezagutzen zuenik eta, baldin bietariko bati jarraitu bazaio, hori gehienez ere bere barneko euskal bertso senak irakatsirik bururatu ahal izan du.

7. Neure lantxo honetarako Antonio Labayenek 1978an argitaratu zuen liburuxkaz baliatu naiz. Zenbait hutsegite dituela esan didate eta Elizanbururen kanta ez daudela beti zuzen aldatuak. Nabari da hori bertso batzuetan, ez baitituzte han eta hemen behar adina silaba. Ez dakit *h*-ak ere beti ongi ezarriak dauden. Zer nahi gisan, ez dut uste makur horien baitan egongo direnik nere ikerketa xume honen ondorioak. Xumea diot, bizpahiru kantutan bakarrik oinarritu bainaiz, azken orduan eta presaka burutu dudalarik neure ikerketa, baina merezi lukeela uste dut gainerako kantuetara ere hedatzea, jakiteko ea halakoa den beti edo gehienetan bederen Elizanbururen bertsoak ontzeko teknika.

8. Liburuxka horrek dakarren sortako lehen kantuak —“Gazte hiltzera dohana” izendatuak— hamaika bertso ditu, berrogeitalau lerro, alegia. Hamasei bider suertatzen dira elkarren ondoan hitz baten azken bokala eta beste baten lehena eta halaz ere ez du poetak bitan baizik sinalefa egiten —biotan *aita-ama* konposatua dugularik, nahiz konposatu bera beste behin lau silabaz ahoskatzen duen—; beste hamalauetan, Oihenartek aginduaren kontra, sinalefa txuliatu eta dieresia egiten du bi bokalen artean, nahiz izan berdinak nahiz desberdinak bi bokalak, hala nola “Eta nere oinetan; Lore sortu orduko; Ni ere hala nola; Aita-ama maiteak”, eta abar, aipatu molde guziok, lehen hemistikioak beti, zazpi silabakoak direlarik. Zer esanik ez, zesura gertatzen den lekuan —hots, zazpigarren silabaren ondoren, hamairu silabakoak baitira bertso guziak— arrazoi handiagoz egiten duela gauza bera.

9. Sorta bereko bigarren kanta utzirik, ez baitut garbi ikusten, inprimategian iragazi zaizkien hutsarteak gatik edo, zer neurri darabilen hor poetak, gatozen hirugarrenera, “Agur herriari” deritzanera, zeinen lehen bertsoa bederen —“Urrundik ikhusten dut, ikhusten mendia”— ia mundu guziak buruz baitaki. Bertsogintza aztertzen ari garen alderdiaren aldetik, Aranek dioenez bertsoa astuntzen duten sinalefak ahal den gutxiena egitearen aldetik, alegia, kantu hau bikaina eta are betegina, eredugarria, izendatzeko kupidarik ez nuke. Nekez molda daiteke bertso sorta arinagorik eta biziagorik, Aranek esango lukeen bezala. Hona zergatik.

10. Hamaika ahapaldi ditu honek ere, lehengoak bezala, beraz berrogeitalau lerro. Sistematikoki txuliatzen ditu sinalefak; ez ordea, lehen bezala, egin zitzakeelarik egin gabe utzirik, hartara Oihenarten legea urratuz, baizik ez sofituz elkarren segidako bi hitzen azken-lehen letrak

bokalak izan daitezen. Gezurra badirudi ere, zesuratik kanpo —hauek ere hamairu silabako bertsoak izaki, zazpigarrenaren ondoan zesura dutenak— bi bider bakarrik kausitzen dira ere horretan bi bokal elkarren ondoan: bat, “Bide-hegiko aritza”, non ez baitakit sinalefa, zortzi gabe zazpi silaba izan zitzan, bi lehenbiziko hitzen artean egin zukeen ala bigarren eta hirugarrenaren artean; eta bi, “Ire adar lodiek” (biak zortzigarren ahapaldian), hemen zazpi silaba dituelarik sinalefa egin gabe utzirik. Zinezko “tour de force” da hori, ene ustez. Zesuraren lekuan bost bertsotan bakarrik dugu aurrean eta atzean bokala eta, zer esanik ez, ez du horietan ere sinalefarik egiten.

11. Arras bestelako itzulpideaz baliatzen da beste kantu lehengoa bezain ezagun batean, “Nere etxea edo laboraria” deritzanean eta lehenbiziko bertsoa “Ikusten duzu goizean” duen hartan. Hemen aitzitik elkarren segidako pilo bat bi hitz aurkitzen dugu, azken-lehen letrak bokalak dituztenak —hogeitik gora segurki— eta halare ez du sekulan sinalefarik egiten, baizik dieresia eginez bi silaba bezala kontaktzen. Kantu osoan gertatzen den fenomeno bakarra da “ordua” bi silabaz ahoskatu beharra, baldin berak “Othoruntz ordua” kantatu bazuen, eta ez “ordu”. Hauek horrela direla, nekez pentsa daiteke sinalefak lekutzeko jokabide bitariko hori halabehar hutsez eta poetaren harxedearen gaindik gertatua denik. Besterik ere bururatzen zaigu: jokabide bitariko hori ez ote da gainera poetaren garatze eta umotze baten ondorioa eta bi garai desberdinen ispilu eta errainu?

12. Laburbilduz esango nuke Elizanburuk bere bertsoak tolestatzeko tankerarekin erantzun bipila (eta berria?) ematen diola euskal bertsogintzak betidanik planteatua duen galderari: “Euskal bertsogintzan sinalefak bai ala sinalefak ez?”, eta mendeetan zehar galdera horri eman zaizkion hiru erantzunei —“bai, beti” (Oihenartek), “ia beti” (Sabino Aranak), “bai eta ez, aukeran” (Etxeparek eta bertsolariek)— beste bat gehitu eta berretu diela aita Jose Ignacio Aranaren araua berea eginez; hots, “sekulan ez, edo ahalik gutxiena, bederen”, horretarako bi bide erakutsiz: galerazi erabat elkarren segidako bi hitzen azken-lehen letrak bokalak izatea, edota hala gertatuz gero, egin beti dieresia.

13. Eta Erromako poetak kantatu zuen bezala, “baldin gauza txipian enxemplu handiez balia ahal badadi”, hau da ene ustez, Elizanbururen bertsoei darien naturaltasun, garbitasun, eta erraztasun —hain zaila den erraztasun— kutsuaren eta usaiaren iturria, non irakurleak uste baitu batere bortxarik eta gatazkarik gabe moldatuak direla. Honek bestalde ez digu lehendik dakiguna sendotu baizik egiten, alegia, Elizanburu ez zela bete-betean bertsolaria, etxean ontzen zituela lumaz bertsoak, eta ez jendaurrean zuzenean; baina aldi berean ez zela Oihenartek nahi zituzkeen poeta landu, ikasi, eskola handiko haietakoa ere.

(Azken orduko ohartxo bat egin beharrean naiz, gauzak bere lekuan uzteko: ni baliatu naizen Labayenen liburuko kantetatik Xabier Elosegik Saran eskuratu didan liburuxkakoetara alde handixea dago eta nik hor goian eman ditudan zenbait kopuru pixka bat aldatu beharko lirateke, bizpahiru goiti-beheiti. Halaber Labayenen “Bide-hegiko aritza” Xabier Elosegik eman didanean “Bide hegiko haitza” da eta “Othoruntz ordua” aldiz “Otruntz ordua”).